

BEZEROAK

Gure enpresaren ustez, oinetakoen bezeroak modari hainbesteko garrantzia ematen ez dioten eta erosotasunean gehiago pentsatzen duten pertsonetan oinarrituta dago. Gaur egun, jende eta enpresa gehienek garrantzia gehiago ematen diote markari erosotasunari baino. Orduan, **erosotasuna nahiago duen bezero batean oinarritu gara.**

Horregatik, gure produktua erosiz, ez dituzu zapata pare gehiago beharko, eskaintzen ditugun zapatilen zapata-zolei esker, une bakoitzean egin behar duzun planaren arabera alda dezakezulako. Horren ondorioz, **kontsumoa murriztuko** da.

Zapatiletan eskaintzen ditugun tamainak (tailak) asko dira, bai umeek bai helduek erabil dezaketen zapatilak direlako. Eskaintzen dugun, **tamaina txikiena 28** da, eta **handiena, berriz, 50**. Horrek esan nahi du 28 eta 50 arteko tamaina guztiak eskaintzen ditugula.



Kamisetak, berriz, unisex direnez, edonor eros ditzake. Kamiseten diseinua gustu guztietarakoa da, **estandarren mende egon gabe**. Termoerregulazio metodoa duenez, sektorean gutxi ikusten den produktu mota bat da eta horrek bezeroei asko erakarriko dien zerbait da.

Kamisetetan daukagun tamaina txikiena **XS** da, eta handiena, berriz, **XXL**

